


Turismo eskuragarria aukera bat da hazkunde ekonomikoa, pertsona guztien eskubideak eta ongizatea bermatzeko.

Turismo eskuragarriaren eskutik, pertsona guztiek turismo esperientziak goza ditzaten aukerak erraztea bilatzen da. Dibertsitate funtzionala jasaten duten pertsonak (horien familiak barne), mugikortasun urriko adineko pertsonak, haurren aulkiak daramatzaten gazteek, aldi baterako ibilgetutako pertsonak, eta abarrek, bizitzak eskaintzen dituen esperientziak eskuragarri izateko eskubidea dute.

Biztanleria europarra abiadura bizian zahartzen ari da; 2050erako aurreikusten da 65 urtetik gorako adineko pertsonen kopurua 2003koari dagokionez 3 aldiz biderkatuko dela. Pertsona hauetako asko oso aktiboak dira eta bidaiatu nahi dute, erretiroagatik dagozkien aukerak aprobeitzatzeko asmoz. Bestalde, mugikortasuna arazo modura bizi dutenentzat, turismo eskuragarria euren askatasun asmoak gauzatzeko aukera bat izatera dator.

Sarritan, adineko pertsonak denboralditik kanpoko bidaiak hautatzen dituzte, sasoi ekonomikoagoa eta lasaiagoa izateagatik; horrek garapen bidean dagoen merkatu bati bidea ematen dio, barne hartuz bai sorrera berriko enpresak eta bai finkatutakoak. Merkatu berri honen helburuak dira adineko pertsonen beharrak asetzea eta horiek gozaten dituzten jarduerak ezagutzea.

Growmat proiektuaren fokua, ekintzaileak, sorrera berriko enpresak eta jadanik indarrean daudenen hedapena sustatzeko potentziala dakarren merkatu honetan ezarriko da. Halaber talde hartzailea osatzen dute Ostalaritza et Turismoa ikasleek eta Bezeroaren Arreta integratzen duten bestelako prestakuntza mota guztiek.



Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)



Proiektuaren eskutik sortuko dira:

- Prestakuntza ikastaroak
- On line komunikazio-sarea
- AccAdvisor – on line eskuragarritasunaren ebaluaketa baliabidea
- FairAccess – Ziurtapenaren oinarritzko eskema

Proiektuko taldea Donostian ospatutako lehenengo bileran

Proiektuko kideak: CDEA (Espainia), Errotu (Espainia), Bridgwater eta Taunton College (Erresuma Batua), Age UK BANES (Erresuma Batua), T2-Consulting (Erresuma Batua), P-consulting (Grezia), Maribor Tourism School (Eslovenia), EfVET (Belgika) eta Haaga-Helia (Finlandia). Azken kide honek, ko-diseinuaren baliabidean aditua izanik, Growmat ikastaroaren curricula diseinatzeko metodologia hau gainerako kideekin partekatuko du. Kide-taldeak adinekoen eta desgaitasunak jasaten dituzten pertsonen zaintzan eta arreta prestatutako pertsonak hartzen ditu barne.